

## GIZADIAREN ARDURAZ

Gizadiaren elburua bere egite ta sinismenean dago. Lurreko giza-bizitza, aurrera, eroan al izateko, ikastetxeak, lantegiak, legeak, espetxeak jarri ditu gizarteak. Gauza guzti onek bizi-bearrak, berez berez, gogoratu eragin dau-tsoz gizonari. Izan bere, lurreko bizitzak jakituria eskatzen dau, ta ortarako, lurrean dagozen izakirik bikaiñenak buru argizko andra-gizonak dira.

Buru almen orrek, berez, izatez, eskatzen dabe argitzea, landutea, zuzentza. Gizonak ortarako sortu ditu ba, ikaste-txeak, jatorriz datorkigun jakituri legeari erantzunez, bizi-tza obeagoa sortu ta egokiago batean bizi al izateko. Jakitu-riak, ondoren, dakarz lan era obeak baserrian ta lantegi osotuagoak kalean. Geroago ta lanak errezagoo egitea da ikasiaren & saria.

Ta lan guztien artean ezaugarri bat izan bear dau gizar-tean, alkartasuna. Buru argi, zuzen, eratuak ta giza biotz, ondo, tajutuak, arean geiagoo eskatzen dabe alkartasuna gi-zartean. Baiña zer dago gizartean bakearen orde burruka ta maitasunaren orde gorrotoa sortzen dabena...? Joka-bide onen inguruetan legeak bear dira giza-semearen esku-bideak jagon al izateko.

Alan be gizona gizon, ta arrokeria dala, edota gaiztake-ria dala, txarkeriak egin barik ezin egon, bakea ausi bear ta gizonak gizonari zor dautson maitasuna il bear. Benetan, jokabide au gizadiaren zoritxar biurtu da. Emendik eska-bide barriak datoz, bakerik izando ba-da, espetxeak bear; au da azken gomaillara eltzea, buruz eta biotzez askatasu-nerako jaio zirenak, burdiñezko tranka artean bizi bearra.

Gaizkillearen duintasuna, or, geratu da bestuta, gaizta-keriagaz eta presondegiagaz. Berez argi artean bizi izateko jaio ta norberak aukeratu illunperako bidea... izatez maita-sun bidez askatasunerako jaio ta basa-mortuko bakarda-dean sartzeko irabaziak norberak egin...! Autu larria da be-netan zentzundun gizonarentzat.

Mundu zabalean izan dira Jesusen Apostoluen antzera irakatsi ta eskubide zainduenak zaintzen ta erriari argirik beiñenak emoten ibili direnak, euren eskubideak zaintzen ibiltarren, leotz baltzetan erabiliak... Amaika olako ta geiagooz gure erria, ondo, mindua izan da... Gizon zuzen onek goragarriak dira, euren argia ta maitasuna erriari, era orretan, eskeiniak. Onek dira errien salbatzailleak, gorroto barik eta maitasunez euren errien alde bizia eskeintzen da-benak. Argia euken euren barruan, egia munduari ager-tzeko ta maitasuna biotzean minduak eta zapalduak, po-zez, indartzeko.

Onek, egin, goratuak izango dira edestiaren bizitza guz-tian kristiñauen giroan, betiraun guztian... Tajua ontako gi-

zonak gure artean be izan genduzan ta aintzaz goratu dai-guzan gure erriaren lora eder onek. Azi ona erein eben, gure gizadiari argi egin eutsen ta maitasunez erriaren alde euren bizia, oparo, urtu ta laster arte agurtu ginduezan.

Lurraren bigarren arpegia askoz ederragoa da, baiña au-rrera, eroaten askoz zaillagoa. Bein baten, mutil gazte ba-tek , poliki poliki, urreratu ta Jesusi esan eutson: "betiko zoriona izateko, zer egin bear dot"; Jesusek erantzun eu-tsan: "amar aginduak bete egizuz". Gazteak diño: beti ale-gindu izan naz aginduak beteten". Jesusek erantzun eu-tsan; ondo, diñozu, baiña eginbearreko gauz bat daukazu; "Zeure ondasun guztiak beartsuei emon eta jarraitu egi-dazu". Gazteak bildurrez alde egin eban, ondasun aundien jaube zan ba...

Jesus, emen, ez daukanagaz errukitzen da. Munduan jentea, goses, ikusteagaz min artzen dau. Beartsuaren miña eta zauria bere min eta zauri biurtzen dira, seme baten zau-riak aita onaren biotza minberatzen dabe eran. Mundua ez da sortu ba gaiztakerietarako, zapalakerietarako ta gorrotoe-tarako.

Anaitasunaren baratza bat izateko sortua da lurra. Zeu-retzat nai ez dozunik, bestearentzat be ez dozu nai izan bear. Au da munduak ulertu ezin daben izkuntza, baiña berba onetan dago, guk mundu guztian bear genduken ja-kituri zuzenaren sustraia. Norbere burua lez besteak be ikusi nai izatea. Au izango litzake munduko ondasunak, lu-rrak, burdiñak, urreak, zidarrak, arrolivak ta gizonaren ta-lentuak ondo, erabiltea gizadiaren otseintzarako.

Jakituri eder au zabaltzen dabillen jentia ba-da mun-duan, ta egi onen alde odola ta bizia emon daben giza seme ta alabak gizadiari irakatsi ona emon dautse. Azia erein eben lurrean ta urko-laguna norbere burua lez maite ebelako, beartsuen alde eskeini eben arnasa. Onek dira be-tiraun guztian Aitaren pozez, izango direnak.

Atxilotua askatzera etorri naz esan eban, munduan eza-gutu daben pertsona arrigarrienak... Guzurrak, arrokeriak, ez-jakiñak norberekoikeriak, gaitz guzti onek gizadia zapal-duta dauke. Egia da gizonaren bizia, bakarrean eta gizar-tean, askatu bear dabena; au berezkoa da; norbere bizia, apaltasunez, gizadia askatzeko emoten dabena, ori da egia-ren jaubea.

Egia, soil soillik, dabil etsai guzti orren aurka burrukan, ta pizti orrek irauten daben bitartean, negarra ta gosea izango dira lurrean.